

500
urte



AZPEITIKO SOKAMUTURRAK
1518-2018

ospakizunari buruzko aldizkaria

Azpeitiko sokamuturrak 500 urte (1518-2018) Herri Batzordea 2018ko abendua

Azpeitiko sokamuturraren 500. urteurreneko ospakizuna izan da herriaren aurten (2018), urtarrilaren 9tik otsailaren 13ra artean, horretarako sortutako Herri Batzordeak antolatuta. Ospakizunaz bere garaian hedabideetan, Interneten eta sare sozialetan informatu ostean, orain, sokamuturzaleen urte berezi honi adio esateko sasoian, aldizkari digital bat osatu dugu.



BALORAZIOA

ARRAKASTATSUA

ETA

GOGOANGARRIA

Arrakastatsua eta gogoratzeko modukoa. Horrela baloratu daiteke Azpeitiko sokamuturraren 500. urteurrenaren ospakizuna, Herri Batzordea osatu dugunon ustez. Hilabete pasatxoan ekitaldi ugari izan da, era askotakoak, ederki atera dira, jendetza bildu da, eta, **ambientea, mundiala**. Eskerrik asko denei!

Datu batzuk ematearren: Argazki Elkartearen *Sokamuturra* liburua-
ren aurkezpenean 300en bat lagun izan ziren Sanagustinen eta 1.300 ale saldu dira (beste 200, banatu); ospakizuneko ekitaldi nagusian 540 lagun izan ziren Soreasun —dena bete zen—; *Irteera* pelikularen 100 ale geratzen dira saltzeko —500ekoa izan da tirada, eta kontuan hartu behar da 540 lagunek filma ekitaldi nagusian ikusi zutela—; Musika Bandaren eta Julian Barrenetxea Abesbatzaren

karnabaletako kontzertuan —Argazki Elkartearen proiektioarekin— 300en bat herritar bildu ziren Sanagustinen; afaltzen 148 lagun Loiola hotelean 500. urteurrena ospatzen... Zezenean zenbat jende ibili den, berriz, ezin kontatu; hitzordu denetan, kaleak beteta. Lehengo eta gaurko sokamutilen eta ganaduzaleen omenaldia ere hunkigarria izan zen; 44 omendu elkartu ziren.

Baina zifretatik-eta harago doa sokamuturra, berriro ikusi dugunez. Era guztietako jendeak bizi du. **Herritarrek txikitatik arnastu dute sokamuturra, memoria kolektiboan dago, eta hori gero, norberak bizitzeaz gain, transmititu egiten da, urtez urte**. Tradizio luzea du usadio honek, bost mendekoa barrera, eta luzerako doa. Guk geuk egiten baitugu, herritarrok.

Antolaketako parte hartzea ere nabarmendu nahi dugu, aipatutako guztiaren isla delako. Hor izan dira Herri Batzordeko kideak: Zezen Beltz Elkar-
tea, Udala, Argazki Elkar-
tea, Musika Banda, sokamutilak —lehen-
goak eta gaurkoak— eta sokamu-
turzaleak; baita, era batera edo
bestera, ganaduzaleak, beste argazkila-
riak, Izarraitz Txistu-
lari Taldea, txaranga,
dultzaineroak, Julian
Barrenetxea Abes-
batza, Urtzi Oteiza
Kaito (ErloTB), beste
hedabideak, Beñat
Lizaso bertsolaria,
Xanti Rodriguez *Ir-
teera*-ren zuzendaria

eta haren lantaldea eta Tristan Iñi-
guez musikaria eta Unai Frantse-
sena Musika Bandako zuzendaria,
Eneko Gereño blogeko diseina-
tzailea eta teknikaria, Nekane
Azpiazu karrozaren egilea, Hilari
Irastorza jostuna, makila berezia
prestatu duten Mikel Arrieta eta
Mikel San Juan, Etxe Zurineko
garajeko sendia, DJ Arno, ostalari-
tzakoak, albaitaria eta beste, udal
brigadakoak, udal teknikariak,
udaltzainak, Eregi komunikazio
enpresa, Kulturaz kooperatiba,
Gipuzkoako Anbulantziak, eta an-
tzezpeneko aktore Onintza Ur-
bieta, Aner Rodriguez, Maria Luisa

Zendoia, Andoni Etxeberria, Iñigo
Almorza, Xanti Rodriguez bera,
extra lanetako Joxe Mari Sagar-
zazu, Eli Garmendia, Jon Ibarzabal,
Jagoba Labaka, Alex Berasategi,
Yara Vergara, Igor Zabala eta Jon
Ulibarri, eta ekitaldiko lehen par-
teko Iraia Bereziartua biolin-jolea,
Lorea Aranburu eta Mattin Ara-

■ Hilabete pasatxoan ekitaldi ugari izan da, era askotakoak, ederki atera dira, jendetza bildu da. Baina zifretatik-eta harago doa Azpeitiko sokamuturra, berriro ikusi dugunez. Era guztietako jendeak bizi du

kistain sokaneska-mutilak, Joxin
Beloki sokamutil ohia, eta hizlari
Andoni Unanue Herri Batzordeko
ordezkaria eta Eneko Etxeberria
alkatea. Ehunka eta ehunka herri-
tar zalerekin batera, festan.

Arrakastatsua eta gogoangarria
izan da sokamuturraren 500. ur-
teurrena. **Herri Batzordearen
izenean, eskerrrik asko denei!**

Hurrengo urtean, 501.a.

■ 2018ko otsailaren 18an, Azpeitiko sokamuturrak 500 urte (1518-2018) Herri Batzordea



Herri Batzordea

HERRI BATZORDEA

Kideak: sokamuturrarekin zerikusia duten eragileak eta herri-tarrak: Zezen Beltz Elkarte (Julen Labaka, Aitor Bereziartua), sokamutil ohiak (Andoni Unanue, Fernando Arakistain, Mikel Odriozola), Udala (Mikel Ibarzabal, Josu Labaka), Argazki Elkarte (Jexus Artola), Musika Banda (Unai Frantsesena) eta sokamuturzaleak (Onintza Urbieta, Enekoitz Esnaola). **1:** Herri Batzordearen aurkezpena, Zokoa soziedadean (2017ko urriak 11). **2:** agurra, Loiola hotelean (2018ko martxoak 2).



Herri Batzordea

EGITARAUUA

2018a data esanguratsua dugu Azpeitian: herriko kaleko zezenak-sokamuturrak 500. urtea du. Gutxienez, 500. urtea, 1518koa da aurkitutako idatzizko lehenengo datua, eta, garaia garai -lantzean behin, debekuak eta guzti-, azpeitiarrok bost mende eutsi diogu tradizioari. Sokamuturraren zaletasunak sustrai sendoak dauzka Azpeitian. Txikitatik arnasten da, transmisioa dago, kale giroa. Herriko festetako ikur nagusietako bat da. Herriaren borondateaz gain, lan handia dago guztia ondo ater dadin; funtsean, ganaduzaleen eta sokamutilen sakrifizioa.

Merezi du sokamuturraren bosgarren mendeurrena ospatzea, eta herri batzorde batek hifabete bateko egitaraua prestatu du, sansebastianak baino pixka bat lehenagotik karnabalak arteko. **Hartu parte eta ondo pasatu!**

Azpeitiko sokamuturrak 500 urte (1518-2018) ospakizuneko Herri Batzordea: Zezen Beltz Elkarte, lehenengo eta gaurko sokamutilak, Argazki Elkarte, Musika Banda, Udala eta sokamuturzaleak.

BOSGARREN MENDEURRENEKO EKITALDIEN EGUTEGIA

2018 URTARRILA

1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

2018 OTSAILA

			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28				



www.sokamuturra500.eus



AZPEITIKO SOKAMUTURRAK

1518-2018



www.sokamuturra500.eus

URTARRILAK 9 ASTEARTEA

Argazki erakusketak, karnabalak arte.
Tokiak: Foru Ibilbideko erakusketak gunea (urtarrilak 9-28), Sanagustin (urtarrilak 12-23), Lagun Onak MB eta Juantxo Txiki (urtarrilak 12-otsailak 13) eta Aisialdi (urtarrilak 19-otsailak 13).

URTARRILAK 13 LARUNBATA

Azpeitiko Argazki Elkarteak Sokamuturra **Argazki Lehiaketako argazkiekin osatutako liburuaren aurkezpena.** 12:00. Sanagustin kulturunean.

URTARRILAK 20 LARUNBATA

SAN SEBASTIAN EGUNA Helduen sokamuturra. 12:00-12:30. Herrigunean. Aurretik, Musika Banda eta Izarraitz Txistulari Elkarte, Plaza Txikian, ohi bezala.

Umeen danborradan sokamuturraren karroza. 12:30.

Helduen sokamuturra. 16:30-20:00.

URTARRILAK 21 IGANDEA

Txikien sokako zezena Erdikalean, eta zezen txikiak eta poniak plazan. 12:00-13:30.

Helduen sokamuturra. 16:30-20:00. Irteera berezia: Etxe Zurineko garajetik.

URTARRILAK 27 LARUNBATA

Ospakizuneko ekitaldi nagusia eta Azpeitiko sokamuturrari buruzko pelikularen aurkezpen emanaldia.

18:30. Soreasu antzokian.

Afaria. 21:00. Loiola hotelean. Afalostean, DJ Arno. Txartelak saltzen: Eguzkitzan, Juantxo Txikin eta Sanagustinen. 35€

URTARRILAK 28 IGANDEA

Helduen sokamuturra. 16:30-20:00.

OTSAILAK 4 IGANDEA

Musika Bandaren eta Julian Barrenetxea abesbatzaren inauterietako kontzertua, Argazki Elkarte kideen sokamuturreko-eta irudiekin. 13:00. Sanagustin kulturunean.

Helduen sokamuturra. 16:30-20:00.

OTSAILAK 11 IGANDEA

JAI KARNABALA Lehenengo eta gaurko sokamutilen eta ganaduzaleei omenaldia. 11:00. Plaza Txikian, Erdikalean, herrigunean.

Helduen sokamuturra. 12:00-12:30.

Artzai-ifiudeetan sokamuturraren karroza. 12:30.

Helduen sokamuturra. 16:30-20:00.

11, 12 eta 13an Sokamuturra **Argazki Lehiaketa,** Argazki Elkartearena.

OTSAILAK 12 ASTELEHENA

ASTELEHEN KARNABALA Txikien sokako zezena Erdikalean, eta zezen txikiak eta poniak plazan. 11:00-12:30.

Helduen sokamuturra. 16:30-20:00.

OTSAILAK 13 ASTEARTEA

ASTEARTE KARNABALA Helduen sokamuturra. 07:00-09:30.

Helduen sokamuturra. 16:30-20:00.

Suzko zezena. 20:00. Erdikaletik plazara.

ARGAZKI LIBURUA

2018-1-13:

Azpeitiko Argazki Elkartek sokamuturreko lehiaketako eta beste ale batzuekin osatutako argazki liburua aurkeztu zuen, Sanagustin kulturgunean. 240 orrialdekoa da, eta 330 argazki dauzka. Tirada, 1.000 alekoa. "6.000 argazki baino gehiago inguratu genituen, negatiboetan. Sekulako lana izan da: katalogatu, eskaneatu...". 1.300 ale saldu dira.

AURKEZPENA
IKUSTEKO
EGIN KLIK



ARGAZKI LIBURUA



Joxerra Larrañaga
1985



Iñaki Iriarte

TRAILERRA
IKUSTEKO
EGIN KLIK



Miguel Angel Iriarte
1985



Jesus Maiz



Jexus Artola




Roman Azkue

ETXE ZURINEKO IRTEERA

2018-1-21: sokamuturraren 500. urteurreneko ekitaldirik berezienetakoa izan zen Etxe Zurineko irteera. 1979an atera zuten hango ukulutik azkeneko aldiz zezena, eta aurtengo ospakizunerako berreskuratzea erabaki zen. Oso polita izan zen. Egun hura ez da ukulua, garajea baizik, baina hitzordurako egokitu zuten. Jendetza bildu zen irteera ikusteko.



IRTEERA IKUSTEKO EGIN KLIK



Roman Azkue



Roman Azkue



Roman Azkue

EKITALDI NAGUSIA


2018-1-27: borobila izan zen sokamuturraren 500. urteurrenako ekitaldi nagusia, Soreasu antzokian. Antzezpen laburra mundial egin zuten herritar aktoreek —aurrez esperientziarik izan ez arren—, eta Azpeitian bertan ekoitzitako *Irteera* pelikulararen estreinaldia izan zen —antzezpeneko gehienak dira filmako protagonistak—. Soreasu, leporaino beteta.



EKITALDI NAGUSIA



**EKITALDIA
IKUSTEKO
EGIN KLIK**




Alberto Beloki



Alberto Beloki



Jexus Artola



PELIKULA
IKUSTEKO
EGIN KLIK



PELIKULA ERE BAI

I R T E E R A



Herri Batzordea



2018-I-27: jai karnabal arratsaldeko zezena atera aurreko uneak jasozten dituen pelikula estreinatu zuen Herri Batzordeak urtarrilaren 27an, Soreasun, ospakizuneko ekitaldi nagusian: *Irteera*. Lan artistikoa da, eta kalitatekoa. Protagonista batzuk ditu: herritarrak. Iraupena, 24 minutukoa. Zuzendaria, Xanti Rodriguez azpeitiarra. Tirada: 500 alekoa; ia agortu zen.

ESANDAKOAK (I)



“Zezen Beltzen segituan ikusi genuen ospakizunerako Herri Batzordea sortzeko beharra, sokamuturraren bueltan beste eragile eta herritar asko ere ibiltzen direlako”.

AITOR BEREZIARTUA (Zezen Beltz Elkarteko eta Azpeitiko sokamuturrak 500 urte Herri Batzordeko kidea), 2018-1-5



“2018a data esanguratsua dugu Azpeitian: herriko kaleko zezenak-sokamuturrak 500. urtea du. Gutxienez, 500. urtea. 1518koa da aurkitutako idatzizko lehenengo datua.

Imanol Elias Odriozola historiagileari zor diogu aurkikuntza. Garaiak garai –tartean behin, debekuak eta guzti–, azpeitiarrok bost mendez eutsi diogu tradizioari. Sokamuturraren zaletasunak, beraz, sustrai sendoak dauzka Azpeitian. Txikitatik arnasten da, transmisioa dago, kale giroa. Herriko festetako ikur nagusietako bat da”. **ONINTZA URBIETA** (Azpeitiko sokamuturrak 500 urte Herri Batzordeko kidea), 2018-1-8



“Ikaragarrizko ikusmira egoten zen Etxe Zurineko ukui-luan, jende asko etortzen zen zezenak ikustera: haurrak, gazteak, helduak...”. **LURDES ARRUTI** (Etxe Zurineko lehenengo ukuiluko familiako kidea), 2018-1-8



“Aurreko urteko Elegante Egunean proposatu zidaten aurten sokamutil irteteko. Ilusioarekin eta gogoarekin nago neure aurreneko aldirako”. **ANDER ZUBIMENDI** (sokamutil berria aurten), 2018-1-17



“Sokamuturrean ibilitako gehienak fijatu izan dira sokamutilen lanean: kamioira zezena sartzean tira sokari, nola eutsi, kontrolatu... Gustatzen zait lan hori” **AITZOL ODRIOZOLA** (sokamutil berria aurten), 2018-1-17



“Karroza oso azpeitiarra dela esan didate. Kalekoa da gaia, eta kaleko koloreak oso ilunak izan ohi dira; horregatik, koloreak sartzen eta alaitasunarekin lotzen saiatu naiz. Festa giroa transmititzen du”. **NEKANE AZPIAZU** (sokamuturrari buruzko karrozaren egilea), 2018-1-18



“Herritarrok egiten dugulako daukagu sokamuturra: sokamutulek egiten dute, ganaduzaleek, bandak, txarangak, za-leek, udal langileek eta Udalak, argazkilariek, txistulariek, dultzaineroek ere bai iaiztik, sorosleek, kanpoko lagunek... Bestela, ez legoke batere. Nahi dugu. Badugu. 500 urtean jadanik; gutxienez, 500 urtean. Azken batean, da: klean zezena eta jendea bueltan. Gaur egun bezala. Bost mende, beraz, dagoeneko. Merez du ospatzea”. **ANDONI UNANUE** (sokamutil ohia eta Azpeitiko sokamuturrak 500 urte Herri Batzordeko kidea), 2018-1-21



“Duela hamar urte Zezen Beltz Elkartea sortu genuenean, helburuetako bat izan da gaztetxoei afizioa sortaraztea, eta txikien sokamuturra ere egitea erabaki genuen”. **MIKEL ODRIOZOLA** (Zezen Beltz Elkarteko eta Azpeitiko sokamuturrak 500 urte Herri Batzordeko kidea), 2018-1-21



“Jai karnabaleko zezenaren irteerarekin konexio bat lortzea pentsatu genuen pelikularako. Zerbait desberdina egin nahi genuen, eta bide horixe hartu dugu”. **XANTI RODRIGUEZ** (‘Irteera’ pelikulako zuzendaria), 2018-1-26

KARNABALETAKO KONTZERTUA

2018-2-4: Musika Bandak eta Julian Barrenetxea Abesbatzak inauterietako kontzertua eman zuten otsailaren 4an, Sanagustinen, Argazki Elkartearen sokamuturreko-eta irudiekin. Bete egin zen kulturgunea. Zezeneko ohiko egunetan ez ezik, bandak aurten sansebastianetatik karnabalak arteko sokamutur hitzorduetan –bi igandetan– ere jo zuen.



KONTZERTUA
IKUSTEKO
EGIN KLIK



KARROZA

2018-1-20 eta 2018-2-11:
San Sebastian Egunean umeen danborradako karrozarako gaia Udalak aurten *Sokamuturraren 500. urteurrena* jarri zuen, eta Nekane Azpiazu azpeitiarra izan zen irabazlea. Lau proiektu aurkeztu ziren. Jai karnabal eguerdian ere atera zuten karroza, artzain-iñudeen desfilean.





OMENALDIA

2018-2-11: lehengo eta gaurko sokamutilek eta ganaduzaleek omenaldia jaso zuten jai karnabalean. 44 omendu elkartu ziren. Lehen ekitaldia, Plaza Txikian izan zen –500. urteurreneko painueloa jaso zuten–, bertso eta bandarekin, eta, gero, Erdi kalean sokan aldenik alde jarri ziren. Artzain eta iñudeekin kalejira egin zuten plazara, sokekin. Ederra izan zen.



Jexus Artola

OMENALDIA



Jexus Artola



Udala

OMENALDIA
IKUSTEKO
EGIN KLIK



Jexus Artola

ELKARRIZKETA

JOXE LUIS AIZBITARTE, SOKAMUTIL OHIA

Joxe Luis Aizbitarte: sokamutil lehen, zezenzale beti. Otsailaren 7an elkarrizketa egin genion, Inpernue soziedadean. 86 urte zituen –apirilean 87–, eta sokako bizipenak, gehiago. Jai karnabalean ere animatu zen omenaldira joaten –irudian–; gaztetu egin omen zen.

Zer adinekin hasi zinen sokan?

25 bat urte nituela, soldadutzatik etorri eta gerora izan zen-eta. Roman [Korta] *Eperra-k*-eta esan zidaten ea irtengo al nuen. Zezenzalea naiz, eta gustura irten nuen.

Zenbat zineten sokan?

Bost. Bostok bakarrik ibiltzen ginen karnabal osoan, eta nekatzen ginen. Etxe Zurinekotik ateratzen zen zezena, eta gu plazara ailegatzean azkar etortzen zen. Ni sokan azkena izaten nintzen. Zezenak sekula ez ninduen pasatu, baina plazaraino bai batera, e!

Nolako zezenak ziren?

Idiskoak. Zezen ederrak. Orduan Saka [ganadutegia] ibiltzen zen.

Zenbat urtean jardun zenuen?

Bi urtean esango nuke, baina igual hiru izango ziren. Roman *Eperra-k* esan zuen laga egingo geniola, eta hala laga genion.

Jende asko ibiltzen al zen?

Bai. Afizio handia izan da hemen. Plazan jolasten ona Julio Bikuña aitta zen; ederra. Ni ere ibiltzen nintzen, baina gero atzeratu egin nintzen, eta gehiago sartu ziren zezenari buelta horiek egiteko.

Zure garaian zer arropa zenuen?

Oinetakoak, abarkak. Bestela, praka zuriak eta alkandora zuria. Eguraldi txarra izaten zen gehienguan, eta abarkekin irteten genuen. Gaurko zapatilekin ibiliko ginatke

gustura... Ikusten ditut nola ibiltzen diren. Halakorik orduan ez zen.

Soka, nolakoa?

Beltzekoa. Seboa eman eta hiltzera eramaten zuten soka, bildu eta han uzten zuten. Tarteka eteten zen. Abitain aldera joan zen behin zezena. Astoarekin joanda errenditzen zuten.

Eskapadarik bai zeuk?

Behin Enparan kalean bi lagun erditik hasi ginen zezena pasatzen, baina nire aldera egin zuen, eta, gora botata, haren kolpea baino txarragoa behekoa! Ama goian zen, etxean, ikusi ninduen, eta negarrez. Beroan, zezena erretiratu eta dena egin nuen. Gero hantxe erbijana genuen, eta joan egin nintzen, baina hurrengo egunean, mugitzeko gauza ez! Amak errieta egin zidan, baina pasatu zen...

Noiz arte ibili zinen zezenean?

Soka utzi, eta urte pila batean ibili nintzen plazan jolasten-eta, eta, horri laga nionean, gustatzen zitzaidan [Erdi kaleko] kantoira joan eta kamioiko irteera hori ikustea. Pasatzean egiten nion keinu bat, eta zezena, plazara. Neu ere bai, eta soka ailegatzeko den tokian jartzen nintzen, topean. Oraintxe nago lagata. Egundoko pena daukat. Etxafuegoak aditzen ditut.

Gutxienez, 500 urte bete ditu Azpeitiko sokamuturrak. Segituko du, hemen den zaletasunarekin.

Baietz uste dut. Azpeitian hau ez da bukatuko.



ELKARRIZKETA
IKUSTEKO
EGIN KLIK





SOKAMUTURRA

2018-1-20 / 2018-2-13 artea: berezia izan da 2018a, sokamuturraren 500. urteurrenagatik, eta urte hasieran sarri izan zen kalean zezena. San-sebastianetan eta karnabaletan, ohiko saioak; eta, berezitasun modura, festen arteko bi igandeetan ere, helduen sokamuturra. Jendetza beti: heldu zein gazte; ibilbidetik kanpo, ume edota gaztetxo ugari ikusten.





SOKAMUTURRA

Uztartia



Inigo Olarte




Alberto Beloki



Roman Azkue

SOKAMUTURRA





Alex Berasategi

SOKAMUTURRA



Alberto Beloki



Jexus Artola

IRTEERAK
IKUSTEKO
EGIN KLIK



IRTEERA GUZTIAK

2018-1-20 / 2018-2-13 artea: sansebastianetatik karnabalak arteko lau asteburuetan helduen sokamuturreko hamar irteera izan ziren, eta Urtzi Oteiza *Kaito*-k denak grabatu zituen, Hispanonekotik. Bideo batean bildu zituen. 11 minutuko iraupena du, eta banan-banan ageri dira irteerak, kronologikoki. Dokumentu historiko bat da. Ikusi, klik eginda.


2018-1-20 (12:00)
Ganadutegia: Arno

ESANDAKOAK (II)



“Urtea joan eta urte etorri gozatu izan da Azpeitian soka luze honek etenik ez izateko, eta badago arrazoirik sokamuturraren 500. urteurrena ondo ospatzeko. Eskerrik asko guztioi eta hau posible egiten duzuen denoi”.

ENEKO ETXEBERRIA (Azpeitiko alkatea), 2018-1-27



Aurtengo otsailaren 1 In herri omenaldia jaso zuten lehengo eta gaurko sokamutilek eta ganaduzaleek. Bideo batean, haietako hamar lagun zezeneko pasadizoak daude jasota, urtarriaren 27ko herri afarian bildutakoak: Agustin Mugerza, Luis Angel Etxeberria, Jexus Arakistain, Fernando Arakistan, Jagoba Labaka, Joseba Senperena, Josu Arregi, Asier Berasategi, Zipri Aranbarri eta Unai Aranarenak.

LEHENGO ETA GAURKO SOKAMUTILAK ETA GANADUZALEAK, 2018-1-27



“Momenturik politena astearte karnabal goizeko diana izaten da. Xarmangarriena da une hori, mozorrotutako jendez inguratuta jotzen dugulako [Plaza Txikian]”. **EDUARDO ARANA** (Izarraitz Txistulari Elkarte kidea), 2018-1-28



“Garai batean txistulariek kalez kale jotzen zuten, zezena zetorrela abisatzeko. Guk berreskuratu egin genuen ohitura hori”. **JOXE MARI SAGARZAZU** (Izarraitz Txistulari Elkarte kidea), 2018-1-28



“Pilotalekuan zezena libre egoten zenenean, Ustarri zaharreen ikusita nago zezena eta gizon bat borroka batean”. **JEXUS ARTOLA** (Argazki Elkarte eta Azpeitiko sokamuturrak 500 urte Herri Batzorde kidea), 2018-1-28




“Sokamuturra iragartzeko bigarren etxafuegoa botatzean atzerapenak egon izan dira. Albaitaria berandu iritsi, eta, haren onarpenik gabe, ertzainen onarpena ere ez da izaten”. **JON ULIBARRI** (udaltzaina), 2018-1-28



“Plaza Txikian hiru aldiz jotzen dugu. Batzuetan, ari garela zezena askatzen dute...; iaz, zuzenean gure aldera”. **UNAI FRANTSEENA** (Musika Bandako zuzendaria eta Azpeitiko sokamuturrak 500 urte Herri Batzorde kidea), 2018-1-28



“Eguna luzatzen hasi den urtaroan, naturak ezarriko digun baraualdi aurreko azken dantza honekin, sokamuturrarekin, esnatzen joan daitezela Azpeitiko lurrak, lehen, orain eta beti”. **AITOR UNANUE** (sokamutil ohia), 2018-2-8



“Zezenaren irteeran gaur egun Erdi kalean dago punturik fuerteena, eta hantxe bota nituen bospasei argazki. Gusura nago lehiaketa irabazteagatik; gainera, 500. urteurrenean”. **ROMAN AZKUE** (Argazki Elkarte kidea eta XXXIX. Sokamuturra Argazki Lehiaketako irabazlea), 2018-3-3



BESTE UNE BATZUK

2017-12-11 / 2018-3-3 artea: **1:** 500. urteurreneko logo lehiaketako irabazlea: Eneko Gereño, ezkerrean (2017ko abenduak 11). **2:** Herri Batzordea, ospakizuna aurkezten (2018ko urtarrilak 8). **3:** argazki erausketa berezietako bat, Lagun Onak Mendi Bazkunan (urt. 12). **4:** sokamutilak, sansebastianetako eta karnabaletako txandak egitean (urt. 13). **5 eta 6:** Argazki Elkartearen liburuaren aurkezpena, Sanagustinen: Udala, elkarteak, Itziar Oiartzabal eta Herri Batzordea; eta jendetza (urt. 13). **7:** sokamutil berriak: Ander Zubimendi eta Aitzol Odriozola (urt. 17).



Herri Batzordea

Uztarrria

Jexus Artola

Herri Batzordea

Herri Batzordea

Uztarrria

Herri Batzordea



8

Herri Batzordea



9

Jexus Artola



10

Herri Batzordea



11

Jexus Artola



12

Alberto Beloki

BESTE UNE BATZUK

8: ETBn ere bai batzordea (urt. 19). 9: zezen txikiak, plazan (urt. 21). 10: dekorazioa plazan (urt. 24). 11 eta 12: ekitaldi nagusian, Soreasu eta alka-tea (urt. 27). 13: afaria, Loiola hotelean (urt. 27).



13

Herri Batzordea



BESTE UNE BATZUK

14 eta 15: Musika Banda eta Izarraitz Txistulari Elkartea, zezeneko ezohiko igande batean (urt. 28). 16: kontzertuan, Sanagustin lepo (otsailak 4).

Herri Batzordea

Herri Batzordea



Alberto Beloki



17

BESTE UNE BATZUK

17: lehiaketako argazki irabazlea, Roman Azkue-rena (otsa. 11). 18: 500. urteurreneko painuelo berezia (otsa. 11). 19: suzko zezena, plazan (otsa.13). 20: XXXIX. argazki lehiaketako sari-emate ekitaldia, Foru Ibilbidean (martxoak 3).



18



19



20

BESTE UNE BATZUK

eta 21: argazki lehiaketan, belaunaldi desberdineko zezenzaleak, Foru Ibilbidean (martx. 3).

21





BEÑAT LIZASO, 2018-2-11
(ganaduzaleen eta sokamutilen omenaldia, Plaza Txikia)

Ze lan berezia den
ganaduzaleena
beraiei eskeiniaz
denbora gehiena
maitatuta haziaz
bitxorik onena
ibiltzeko herriko
kaleetan barrena
zuen kapritxoa da
denon gozamena

Soka bakar batean
zenbat oroitzapen
bilduko lirakeenak
anekdota baten
eduki dezan behar
adina iraupen
kalean gora, beheara
segi eramaten
luza sokie baino
ez dadila eten



INFORMAZIO GEHIAGORAKO EGIN **KLIK!**

'Sokamuturra500' atalean daude 500. urteurreneko ospakizuneko albistegia, argazki bildumak (1.012 irudi) eta bideoak (51 bideo)

UNE LAZGARRI BAT ere izan da, Txomin Larrañaga sokamutil ohiaren semea hil baitzen, eskiatzen. Herri Batzordeak urtarrilaren 2an doluminak eta elkertasuna adierazi zizkion Txominen sendi osoari



ESKERRIK ASKO DENOI!



AZPEITIKO
SOKAMUTURRAK 500 URTE
(1518 - 2018)
HERRI BATZORDEA



LEHENGO
ETA GAURKO
SOKAMUTILAK, ETA
SOKAMUTURZALEAK